

Hitza - Esanahia	Testuingurua	Orrialdea
abaildura 'nekea, nekadura, akidura'	Alabaren barkamen-hitz otzanenek ere ez zuten gogo-abaildura hartatik egunetan aterako.	49
abaro 'gordelekua, babeslekua, aterpea'	Bere abarora behartu omen zaitu bizitza osoan.	122
adabaki 'adabua, txaplata, txatala'	...soinekoko adabaki salagarria baino askoz ere kondena latzagoa erabakia baitute	82
adeitsu 'errespetuz'	Oso adeitsu hitz egin zidan, ordea, hanka artean babesturik lurtean neukan liburu-poltsa ondo beteari erreparatu ziolako-edo.	11
ageri izan 'begi-bistan, nabarmen'	Andreas ageri, eta Nora etsitzen hasita zegoen, zerbait gertatuko zitzaioala pentsaturik.	161
ahakar egin 'agiraka egin, errieta egin'	Atzera egin eta isiltzekotan egon zen, izua baitzion aitaren begirada hari, baina, adorea harturik, ahakar egin zion...	40
ahalke 'lotsa, herabe'	Ez hadi ahalke izan, hiretzat, hiretzat dituk-eta sobratzen zaizkianak ere.	62
ahitu 'agortu, bukatu, iraungi'	Agureak hizketa modu garbi batez hitz egin zuen, bat-batean mozkorraldia guztiz ahitu balitzaio bezain argitasun sorpresatsu batez:	115
ahur 'esku barrua'	Elizabetehek nebaren eskuak hartu, eta kiromantiko baten moduan pasatu zituen hatz-puntak nebaren esku-ahurreko erreten txikietatik.	75
aise 'erraz'	—Ez, baina, auskalo —erantzun zion sirgariak— mila mozerro ditu judu herratuak, eta ez zaio aise hartzen trazarik.	165
aitzina 'aurrera'	Aitak, haserre, oihi egin eta zaldiak ezproinatu zituen: —Axa, axa, zaldiak! Aitzina!	84
amaraun 'armiarma edo aramu sarea, geuna'	Muselinazko gortinek arratsaldeko argia moteltzen zuten, (...) argi nagia amaraunean harrapatua zirudien denborak.	24
anabasa 'nahas-mahas, lakituta'	Irten beharrean zeuzkan begiak, eta ileak guztiz anabasan.	130
anarte 'ordura arte, bitarte'	Zurea da orain erabakia -esan zuen Mathildek, ordu arte baino kemen handiagoz, anarterainoko jarrera adeitsua ahitzeko arriskuaren abisu emanez	175
apeta 'nahia, guraria'	Ezagutzen ez dudan hiri batera heldu orduko, bide-fardelak hotelean utzi eta, ez mapa ez norabide, ibiliaren apetara abiatzen naiz (...) kaleetan zehar ...	
araketa 'aazterketa, miaketa'	Bestela, memoria galdua baldin badu, jendarmeen eskuetan utzi beharko dugu, beharrezko araketak egin ditzaten.	173
argizagi 'argizaria, arzagia, ezkoa'	Hark gozatutako argizagia bezain malgua eta mela zen Salemdarren poza ...	36
arian-arian 'poliki-poliki, apurka-apurka'	kalesako neskatxaren ezpain-arte zekarkidan gogora arian-arian gelditutako eguerdi beteko argiak.	22
arrangura 'kezka, ardura, goganbarra'	Baina aitaren jario hunkigarrian babestu orde, zotinak erdi gorde eta, aspaldiko arrangurak gogoan, aurre egin zion, erresumin ozpindu batez:	39
artatsu 'fin ,maratz, arduratsu'	Noiz gozatu ote genuen azkenengoz kai bateko ikuskizun artaturik?	86
artosto 'arto-hostoa, arto-orria'	Artosto kiribilduak zeuden haien oinetan, otartxoak-eta egiteko erabiltzen diren moduan txirikordaturik.	17
astanafarrieri 'umeen gaixotasuna (viruela)'	negu osoan jasandako piraten etengabeko erasoak erantsi behar zitzaizkion goseari; ehundaka haur eraman zituen astanafarrieriak...	28
ataka 'egoera txarra, trantzea.'	Hala gertatuz gero, zer? Nola atera behar zuen ataka hartatik?	187
atarramendu 'ondorioa, ondorena, emaitza'	—Esan ez dinat, bada, nik! Hara, orain! Atarramendua da, gero! Baditun munduan emakumeentzat eginak ez diren gauzak.	102

Hitza - Esanahia	Testuingurua	Orrialdea
atezuan 'teinkadura, teinkatasun'	...haizeak emandako abagune haren atezuan egon balira baino harrapariago.	138
atoian 'untziak eroan, erremolkean'	Andreasek (...) sokatik tiraka, belaontzia inguratu zuen moilaraino. Atoi-lana amaiturik, lotuta utzi zuen.	153
axa 'tira, aida'	Aitak, haserre, oihu egin eta zaldiak ezproinatu zituen: —Axa, axa, zaldiak! Aitzina!	84
aztakatu 'induskatu, arakatu'	Norari ez zitzaion, bada, bere bitara bildu eta oroitzapenetan aztakatzea beste biderik gelditzen, ...	53
baraila 'zalaparta, astrapalada'	... ostatu ondoko frontoi txikian entzuten ziren haur-oihu eta barailak.	192
barride 'auzoa, auzategia'	Barride Gotikoko usaina guztiz desberdina da, argi-tasuna bezala, urte-sasoi bakoitzean.	159
basaran 'sasi-okarana, patxarana'	Basaran heldu gabearen usain gero eta mikatzagoa zuen aireak, eta kristal hautsak zekartzala zirudien...	141
behargin 'langilea'	... nekazari eta behargin jende guztia zalgurdi haustu haren zer-nolakoez ezkutuan maiseatu eta zer egin erabakitzeko?	28
bekoz beko 'aurrez aurre'	Bekoz beko begiratu zion Andreasi. Hunkiturik zegoela zirudien, atezuan bainoago.	121
belaki 'esponja, harrokia'	Arroz-hautsen potetxoa hartu zuen gero, eta aurpegiko kolore-aldaerak berdinu zituen behin eta berriro potetxoan sartzen zuen belaki txikiaz.	180
belatxinga 'belearen antzeko txoria'	Belatxinga baten orroaren aritzeko oihu bat entzun zen publiko artetik:	35
beltzuri 'bekoskoa, haserre adikunea'	...gehienak baino garaia goa zen Willem, eta planorantz begiratzen zuen beltzuri, emaztea festa-giro haren ardatza izatea ez zuela gogoko (...)	178
belzurri 'beltzuri'	Belzurri gogorrean hitz egin zion, erabaki hartan erantzunkizunik ez zuela garbi utzirik.	140
beraxka 'beratz, leun, biguntxo'	Esku-lanik egin ez dutenena bezalakoxea zuen aitak eskugaina: handia, zuri-zuria, eta beraxka.	47
besana 'emakumeen samako zapia'	Emaztea, berriz, zumezko aulki kulunkari batean dago, harizko besana beltza sorbaldan duela. Neska koskor bat	135
bilin-bolon 'bilintzi-balantza, zabuka'	belaontziaren bilin-boloak halako zutik egonezina sortarazi baitzion. Hankak elkarrengandik berezirik ibiltzeko aholkatu zion Andreasek.	95
birao 'madarikazioa'	Ordurako Noraren presentziaz ahazturik, Andreasek oihuka eta biraoka hartzen zuen itsasoaren kontrako lehia bakoitza:	144
bits 'aparra, bisutsa'	eta munstrotzar ikaragarri baten lerdea zirudien olatu-tontorretako bitsak.	144
burlaize 'burlazar, isekari, txantxatan'	—Diamantetzat al daukak nire ametsa? —galdetu nion burlaizez, adiskideak bai baitzekien ametsak ez ditudala oso gogoko material literario gisa.	24
dirdai 'distira, argitasuna'	Neguko dirdai - errauts-koloreak eta espaloietako ezki biluziek areagotu egiten zuten inoiz luxu handikoa izandako barridearen, ez dut esango hondamendia,	10
duin 'errespetuz, begirunez, adeitsu'	Aitak, aldiz, atzerarik ez duen patu beltz baten ezinbestea onartzen zuen. Hoztasunez eta duin.	41
edabe 'edari magikoa'	kutxa hartan altxor izugarriak, mapa harri-garriak, harri filosofala eta betiko gaztetasunaren edabea gorderik zeudela usteak emanda.	24
egotzi 'jaurti, bota, ohildu'	Hildako mofeta bati egotzi zion Nathanielek oka hasterainoko keru gaiztoa.	67
ele 'elezaharra, ipuina / hitza, berba'	Izenik badu, bada. Izenik ez badu, ez da. Hainbat eleetako mamuek ez dute izenik, ez, baina horixe dira, ordea: eleetako mamu	

Hitza - Esanahia	Testuingurua	Orrialdea
elezahar 'ipuin, alegia, elea'	Enuraz eta otezka gelditu nintzen, elezahar, batetik ateratakoa zirudien amets hartatik esnatu nintzenean.	20
enura	Norak, aldiz, enuraren antzeko harridura sentitu batez begiratu zion emakumeari, ez baitzekien nola hartu emakumearen hitzetako omen hura	196
eragotzi 'debekatu, galarazi'	...hesoletako argira egokitu zuen buruaren posizioa, irakurketa eragotziko zion itzalik izan ez zezan.	87
erasan 'eragin, afektatu, kalte egin'	—Non da? —Jakini nahi izan zuen Norak, aita edanak erasana eta artean lo egongo zela pentsaturik.	121
erkindu 'ahuldu, makaldu'	Gerraren etorrerari buruzko izuaz mintzaturiko emakume erkinduak lepoa luzatu zuen Nora zegoen aldera.	216
erpuru 'hatz lodia, erkoroa'	Begiak jaitsi, eta erpuru eta erakuslearen hatz-puntak busti zituen ezpain artean.	82
erretxindu 'haserretu, zapuztu'	Berehala erretxindu zen Willem, leihoak zabaldu orduko euliak sartzen baitziren trumilka;	186
errukior 'bihozbera, gupidatsua'	Tximistak jota bezala bihurritu zen Elizabeth ohe ertzean. Lepoa tenteturik, nebari begiratu zion, errukior.	76
eskerga 'itzela, egundokoa, izugarria'	... zure laguntza eskergak eta ontziari izena eman dion zure alabak ere merezi dute etorkizunaren esker ona.	114
eskorta 'arditegia, korta, saroea'	Egunaren argi guztia biltzen hasita zegoen eguzkia, artzaina bere ardiak eskortara bezala.	51
huri-zarama 'huri-ugerra, zirimiria'	kalesako ibiltariak gogaitzen hasita zeuden etenik gabeko euri-zaramaz.	79
ezarian-ezarian 'ia ohartu gabe, oso astiro'	Gero, ezarian-ezarian, bere magalera eraman zuen mutilaren eskua.	136
ezki 'zuhaitz mota (tilo)'	espaloietako ezki biluziek areagotu egiten zuten inoiz luxu handikoa izandako barridearen, ez dut esango hondamendia	10
ezproinatu 'espielak sartu'	Niri beste inori ez dio ardurarik goiz hartan nire bibliofilia ezproinatu zuten bitxikeria zaharren aipamenak.	10
farfaila 'harrotasuna'	Gero eta teatralagoa -haizeak hara eta hona darabilen farfaila- egiten hasi zitzaion Norari aitaren jarrera hura, ...	69
galga 'maila'	Bazkaldu genuena ere ez zen kartako jaki-izen puztuek idarokitzen zutenaren galgakoa izan.	13
gardantxulo/kardantxilo 'karnaba, kardantxoria	Pazientzia bildurik hitz egin zuen, astiro, eta kaiolan zeukan gardantxuloa hil berri zaion ume bati bezain leun:	131
gaztigatu 'abisatu, ohartarazi'	—Hor kontatzen dudan Hester Prynneren istorioa ez da batere alai; gaztigatuta zaude —desenkusatu zitzaion Nathaniel, ahots ilunez.	77
golde 'lurra lantzeko tresna, makina'	Europa zaharreko goldeen zain zauden alorak, hango trontza-zerren zain haritz eta gaztainak, hango pikatxoien zain ...	41
gorpu-gantzutzaile 'koipea igurzten duena'	... nekrofilia kasuren bati buruzko kontakizuna eta balada ezaguna (...) ekarri zizkidan gogora gorpu-gantzutzailearen izenak.	12
haga 'langa, pertika'	Urkamendiko tranpola zabaltzen zuen hagari eragin zion borrarroak, eta Martharen oinek ostikada bana eman zioten aireari.	31
halabehar 'patua, zoria'	Andreasek, halabeharrak eraman balitu bezala, eta ez mutilaren borondateak, Nora izenera.	111
harrimen 'harridura'	Berehala jabetu zitzaion bere argitalpenen bat irakurtzerakoan beti sentitzen zuen harrimenezko galdera	65
hauspotu 'puztu, harrotu'	Listua irentsi, zuen Andreasek. Seriotasun hauspotu batez hitz egin zuen gero:	114

Hitza - Esanahia	Testuingurua	Orrialdea
hesola 'oholez egindako hesia'	Halako batean, Salen? irakurri zuen Norak hiriaren sarrerako hesola bati josiriko oholean.	28
hordi 'mozkor, edanda'	Noraren aita guztiz horditurik zegoen eta, okerreanean, Andreasek Noraren jabe egin nahi zuela kontura-turik ere, zer egin zezakeen agure gorotz-zaku hark?	108
hozkirri 'fresko'	Supituki zabaldutako ate batek sortu ohi duen antzeko aire-zirimolak hozkirritu zuen Nathaniel.	65
idaroki 'iradoki, burura ekarri'	—Utzi zuen Elizabethek esaldia airean, bere hitzei kontu-eskatzearen tonua idaroki zezakeen ukitu oro kentzen ahalegindu eta gero.	78
ifrentzu 'iruntzia, atzealdea'	Lore brodatu bati haria libratzen ari zitzaioa oharturik, ifrentzua hortz artera eraman, eta bere onera ekarri zuen haria.	193
inarrosi 'astindu, jaurti, bota'	...eromenaren aukerak inarrosi zion barrena, aita mozkorturik jasotzen zuenetan haren eromenaren aukera ere hausnartu izan ohi zuen bezalatsu.	188
irabia 'buelta, iraulika'	Gero, buruan irabiaka zerabilen galdera egitera ausartu zen: —Zer gertatu behar zuen, bada?	134
jaregin 'askatu, libratu'	Mathildek bere eskua Noraren eskutik jaregin, eta ohe ondoko olio-lanpara piztu zuen.	180
kalamatika 'berriketa, mordoiloa, kontua'	Aspaldi baztertua nuela uste nuen hurkoekiko morrontzan eta predestinazioaren kalamatika hartan erori behar al nuen berriro?	27
kalapita 'astrapalada, zarata, iskanbila'	Aitak, aldiz, atzerarik ez duen patu beltz baten ezinbestea onartzen zuen. Hoztasunez eta duin. Kalapitarik gabe	41
karel 'itsasontzien ertza, baranda'	Alde banatako kareletako toletetara loturik zeuden espartuzuko bela-sokak lasaitzen ari zen, ...	138
karkasa 'gorroa, kerrua, txistua'	Gizonak eztarririk gora igo berri zitzaion karkasa ahoan oretu, eta tu egin zuen lurrerantz piparen beste aldeko ezpain artetik.	36
karranka 'karraka (onomatopeia)'	...ilargiko hiru gabiraiak baitziren, karrankaren eztandaren oihartzunetan, bizirik zeuden gauza bakarrak.	211
kilimusi 'keinu, diosala, agurra'	Neskak kilimusi lotsakor batez itzuli zion irribarrea.	44
kriskitinka 'kaskabilo soinua'	—Kriskitinka itzuli nintzen, bada, hotelera, bizpahiru hilabete barru berriro itzultzeko aukerak gogo-pizturik.	13
laborri 'ikara, izua'	Zer egin zuen senarrak? -galdetu zuen Norak laborriz-.	134
lakar 'latz, lakatz'	Eztarri-soinu lakar batek Wardwell arnasarik gabe gelditu zela adierazi zionean, eskailera-mailak azkar-azkar jaitsi, eta	35
lakio 'lakirio, korapiloaren begia'	Borreroa (...) urkabilurra burutik behera sartzten hasi zitzaion ferratzaileari, baina lakioa ez zen Wardwellen buruaren neurrikoa,	35
larrantz 'itxura'	arranoaren hegaldi goratsu eta larrantz ederraren liluraz, eta haren atzaparren beldurrez.	89
lerde 'adurra, listua, txistua, tua'	Lerde-hari bat gelditu zitzaion borreroari kokotsean.	36
likits 'zikin, lohi itsaskorra'	-Likitsena bildu beti, hari darion izerdia da-eta bularretako mukia askatzen duena -aholkatu zion Velascok.	212
lipar 'unea, momentua'	Andreasek itxaron egin zuen lipar batez. Neskaren ile-mataza hatz artean hartu zuen gero, eta, astiro-astiro, baina etenik gabe hitz egin zuen:	122
listari 'lits haria, lista'	Lazoa egin zuen gero, listaria oihal-xingola beis batez estalirik.	180
loki 'lokarria, lotura'	Aduanaburu egiten zuena berlinaraino hurbildu, eskua lokira eraman, eta goardia-jarreran zurrundu zen.	188

Hitza - Esanahia	Testuingurua	Orrialdea
loki 'lotura, lokarria'	Aitak lepoa luzatu zuen alabarengana, eta begietan begiak hitz egin zion. Lehertzeko zorian zeuzkan lokietako zain ttikiak:	48
longaina 'soingainekoa, kapa'	Longainaren lepokoak jaso, eta inprimategi-tik bizpahiru etxaditara ze- goen kafetegi jendetsura sarturik, mahai aparte samar batean eseri zen ...	65
losintxa 'lausengua, balakua, zurikeria'	Begiak beherantz eta apal ari zen hizketan, halako solasetarako ohiturarik ez, eta afal-kideei bekoz beko begiratzeko losintxaz edo.	208
magal 'altzoa, galtzarra'	Ustekabeak ikaraturik, magaletik behera erori zitzaion liburua.	90
makatz 'basoko ezti'	Edaria ez da emakumeentzat batere on, ezti makatza ere astoarentzat egina ez den moduan	105
maxkal 'maskala, mengela, ahula'	Maisuaren gorpuzkera maxkalak eta hizketamodu leunak idarokitzen ez zuten oso bestelako irmotasuna erakusten zuten, ordea, haren hitzek.	208
mentura 'zoria, zortea, halabeharra'	Menturak nahi izan zuen orrialde batean zabaldu zuen gero liburua.	77
mihura 'aukia (muerdago)'	...ederrenean egondako arbola orbeldua eta mihurak hartua bezalaxe zegoen.	123
mirabe 'zerbitzaria, morroia, neskamea'	Mirabe gazte bat agertu zen gero botila haustu pare bat eskuetan. Markesari erakutsi zizkion botilak.	212
nare 'bare, lasai'	Bere haurtzaroko hainbat oroitzapen agertu zuen Mathildek, istorioak kontatzea atsegin duen baten hizketa-modu narez.	203
oharka 'ohatzea'	Andreas oharkaren ertzean eseri zitzaion, zapi busti bat eskuan.	122
ohatze 'ohantzea, etzauntza, ohe oharka'	Baina ez dago zertan kezkatu. —Sukalde ondoko gelatxoa seinalatu zuen- Har dezala atsedean pixka bat nire ohatzean.	103
oholtza 'tarima, oholeria'	Urkabilurren ezkeraldera, oholtzaren albo batean, gizon patxadatsu bat zegoen, ahoan zeukan buztinezko pipari zurga eta zurga.	29
oinazetu 'min eman, tormentatu'	Argiak oinazetu egiten zuen-aukeran gogokoagoa zuen, ordea, argia ilunbea baino.	71
oldartsu 'sutsu, suhar, kementsu'	—Barkatuko ahal didazu inoiz! -eta besotik heldu zion oldartsu, neskak gelatik alde egingo ote zion beldurrez.	71
oldozkor 'pentsakor'	Oldozkor gelditu ziren biak. Euriaren Jardun eten-gabea sentitzen zen leihoko kristaletan.	73
on zegiola 'on egin ziezaiola'	Ez zen, bada, kafetegiko bezero eta zerbitzari guztien patrikak miatzen hasiko... Irakurketak on zegiola lapurrari!	67
onkote 'on-huts, ogi puska'	Ilargiaren itxura onkotea zegoen atearen erdi-erdian, eta haren distira urdinak betetzen zuen atea-ten tarte osoa.	207
orban 'orina, mantxa'	Orban more batek hartzen zion aurpegiaren la ezkeraldea osoa.	163
ore 'masa'	Euriak mofetaren kerua arindu ordez, trinkoagotu egin zuela iruditu zitzaion, airean ore bihurturik sentitzen baitzuen.	68
oretu 'batu, pasta egin, gorpuztu'	Gizonak eztarririk gora igo berri zitzaion karkasa ahoan oretu, eta tu egin zuen lurrerantz piparen beste aldeko ezpain artetik.	36
osin 'putzua, leizea'	Itsasoak, berriz, orroari orro, osin baten moduan zabaltzen zuen ahoa, eta munstrotzar ikaragarri baten lerdea zirudien olatu-tontorretako bitsak.	144
pagotxa 'hirusta lore gorria'	Hilezkorrak gaitun. Ba al dakin zer emango lukeen jendeak guk daukagun pagotxaren trukean?	46
pitzadura 'arrakala, arraildura, zirrikitua'	Nora, aitaren pitzadurarik gabeko mundu-ikuskerak ez baitzuen sekula halako duda-mudaren bitsik ere onartzen	50

Hitza - Esanahia	Testuingurua	Orrialdea
pitzatu 'arraildu, urratu, apurtu'	Mathilde pozik zegoen Willemen aldarte-aldaketa eragin izanaz, huraxe baitzuen neska jendarmeen esku uzteko jarrera pitzatzen hasteko gokiera	170
sapa-belarrak ???	Zaldi-irrintzia iruditurik, sapa-belarrak ateratzeari utzi, eta burua jaso nuen.	16
sisibasa 'zizipaza, totel, hitz-totela'	Alabak ulertu ez zion hitz-andana arranguratuaz aritu zen gero, bere golkorako sisibasan.	48
sorgor 'soraio, sor, zurrun'	Une hartantxe esnatu izan balitz baino sorgortuago begiratu zuen Norak ahots kraskatuaren aldera. Hester Prynne!	211
sos 'txanpona, dirua'	—Ditudan sos guztiak jarri nahi ditut zure negozioan, Andreas —eta ugerrak galdutako bost sos zaharrak atera zituen patrikatik.	113
suhar 'bizkor, adoretzu, gogotsu'	Hasieran herabe, eta soineko koloretsuak probatzen joan ahala suharrago, bat jantzi eta bestea kendu, ...	155
taket 'kankailu, tantai'	Likoreen ordua heldu zenean, gizon aurpegi zurbil eta taketa bezain gorputz tente bat hurreratu zitzairen alboko mahai batetik.	182
tamala 'nahigabea, atsekabea, malura'	—Tamala da zure sistemari ahalik eta etekinik ugariena atera nahi ez izatea ...	100
trenpu 'sasoia, aldartea'	Zain eta zain egon beste deus egin ez dezakeenaren trenpuan.	41
trepeta 'tramankulua'	tresak, kordelak, bahe zabalak eta arrantzarako hainbat trepeta, kresalak jandako horman zintzilik...	159
triskilatu 'moztu'	...hiri-kanpoko bihitegiak, ferratzailearen estalgunea, ardi triskilatu berrien eskorta nabarmenagotzen hasi zen Nora zeru urretsuaren kontra.	27
trumil 'tropelka, bilin-balan'	Ibaiaren ahoa bare-bare zegoen eta belaontziak ez zuen batera nekerik izan ibaiak itsasoarekin bat egiten zuen gune trumiltsua igarotzeko.	153
txera 'agudezia, zorrotasun'	—Nik emandako sagarra jan! —esan zion Willemek, bere txera oneko ateraldia berak bakarrik txaloturik.	171
tximitx 'zimitza, txintxea'	—Hotel Ambassadeurs! Hotel Ambassadeurs! Ez duzu arkakusorik, ez tximitxik aurkituko gure oheetan.	159
txonta 'txontxa ???': lelo, memelo	Baina ez hadi txonta izan, hainbat gaiztoagoa baita hire bikea zauriaren gainera bota behar tamal hori.	40
uger 'herdoil, lohi'	—Ditudan sos guztiak jarri nahi ditut zure negozioan, Andreas —eta ugerrak galdutako bost sos zaharrak atera zituen patrikatik.	113
urde-simaurra 'urde-gorotza'	Urde-simaurra aspaldi hildako asta-barren ustelduetara botata ere ez zegoen berdintzerik mofeta-kirats hura	82
urkabilur 'urkamendiko soka'	Amak berak egin zizkion lastoz beteriko panpinak, mutikoak urka-bilurretik zintzilika zitzan.	70
urkamendi 'pikota, urkatokia'	...nik, John Hathornek, Salemgo hiriak sorginkerien aurka jarritako kausaren epaileak, urkamendian hiltzera kondenatzen dut Samuel Wardwell ...	33
urlia, sandia, berendia 'ezezaguna aipatzean'	Zein baino zein nabarmenagoak ziren (...) bideko lagun haiek: urre-bilatzaile zen urlia, bazterrik bazter eta hiletaz hileta bere kantuetatik bizi zen erostari sandia;	60
xalo 'xumea, apala, xotila'	Neskaren urduritasunaz ohartu ez balitz bezain xalo hitz egin zuen Andreak, naturaltasunez eta sosegua zerion hizketa moduz neska ere sosegatu nahirik:	93
zabuka 'kulunka, bilin-bolan, kordoka'	Zabuka egin zuen neskak, ontziaren higidurara egokitu ezinez.	130
zalapartari 'zaratatsu, iskanbilatsu'	Kalesa desagertu egin zen gero, su bizira botatako lastoa erre ohi den moduan: bat-batean era zalapartari.	70
zaldi-zaharo 'zaldi-zigor, mihimen, zarta'	Gai berberaz egindako otartxo, gerriko eta zaldi-zaharoak zeuden, berriz, kalesak atzealdean zuen apalean.	27

Hitza - Esanahia	Testuingurua	Orrialdea
zapuztu 'arbuiatu, muzin egin'	—Kalesan hobe! —zapuztu zitzaion Andreasi.	103
zarbaildu 'hondatu'	Denbora asko neraman orri pasa, eta liburua zarbailduko niola pentsatzen ari zen, antza, gizona.	11
zerion 'jario ad.: isurtzen zitzaion'	Argi zuri itsugarria zerion lurrari.	16
zimiko 'eztenkada, ziztada'	Balea-koipeaz betetako kupelak deskargatzen ari ziren marinel zalapartari batzuk, biraoa hark eta zimikoa horrek, ...	85
zinkurin 'auhena, hasperena, kexuzko	Etsipenezko zinkurina egin zuen Mathildek.	194
zirga 'soka, korda'	ondoko zirga lodi bati eragiten zion, zeinak bela-soka guztien gida-lana egiten baitzuen, belak lasaitzeko.	143
zirkindu 'mugitu'	Toilette hitza aipatu zuen Mathildek, eta irriño batek zirkindu zituen Noraren ezpainak	203
zirrara 'emozioa, inpresioa, sentipena'	Zirrara batek gorputz osoa astindu, eta losorrek hartu zuen Nora. Senar-emaztea bizpahiru minutuz egon ziren artean	167
zirrikitu 'tartea, bitartea'	Kateme zuri eder bat sartu zen ate-zirrikitutik gelara, eta jauzi egin zuen ohe gainera.	75
ziztrin 'txikerra, purtzila, ezereza'	Ai, gizonok bitan eztabaidatuko bagenitu geure arazo ziztrinak, deus erabaki baino lehen!	112
zorne 'materia, usteldura, gatxa (pus)'	Zakur zornetuak nonahi, beren zaurien miazka, eta elkarri erasotzeko ere indarrik gabe.	28
zume 'mihimena, zumitza'	Emaztea, berriz, zumezko aulki kulunkari batean dago, harizko besana beltza sorbaldan duela.	135
zurrun 'gogor, tinko, sor'	Iluntzerako beletako sokak zurruntzen hasita zeuden, espartzuaren tarteetako ur-tanta xeheak izozten hasiak baitziren.	143
zurrundu 'gogortu'	Zurrundurik zeukan sabela, arnasa bildu ezinik sentitzen zituen birrikak.	31